

Espediente zk./Nº Expediente: 2020SDBD0023
Gaia/Asunto: COVID-19AK SORTUTAKO KALTE EKONOMIKOAK ARINTZEKO ENPRESA
ETA AUTONOMOENTZAT BIDERATUTAKO DIRULAGUNTZAK
Eskatzailea/Solicitante: SDBD **NAN(IFK)/DNI(NIF):** 90909090A
Kokalekua/Emplazamiento: ERRENTERRIA

DIRULAGUNTZA OINARRI ESPEZIFIKOAK

**COVID-19AK SORTUTAKO KALTE EKONOMIKOAK LEUNTZEKO ERRENTERRIAKO MIKROENPRESA ETA
PROFESIONAL AUTONOMOENTZAT BIDERATUTAKO DIRULAGUNTZAK**

BASES ESPECÍFICAS DE SUBVENCIONES

**AYUDAS A MICROEMPRESAS Y PERSONAS AUTÓNOMAS DE ERRENTERRIA PARA MITIGAR LOS
EFECTOS ECONÓMICOS PROVOCADOS POR EL COVID-2019**

1.- Dirulaguntzaren xedea

Oinarri hauen helburua da, lehiakortasunik gabeko konkurrentziazko modalitatean, dirulaguntzak emateari aplikatu beharreko oinarri arautzaileak ezartzea, COVID-19ko pandemiari aurre egiteko deklaraturako osasun-alarmak Errenteriako mikroenpresen eta norberaren konturako langileen artean eragindako ondorio ekonomikoak arintzeko, nekazaritza-sektorekoak barne.

Dirulaguntzat hartuko da zuzeneko kontraprestaziorik gabeko funts publikoak erabiltzea, alarma-egoera deklaratu izanaren ondorioz beren jarduera geldiarazi behar izan duten edo beren fakturazioa murriztuta ikusi duten enpresek jasandako gastu arrunten zati bat ordaintzeko, Ordenantza honetan aurreikusitako baldintzetan.

2.- Dirulaguntzak zein partidaren kargura egingo diren eta emango diren dirulaguntzen gehienezko kopurua

Deialdi honetan dirulaguntzetara bideratuko den partidaren zenbateko guztia 1.700.000€ euro dira, 2020ko aurrekontukoaren partida honen kontura:

1 0320.471.01.433.00 2020

1.- Objeto de la subvención

Estas bases tienen por objeto establecer las Bases Reguladoras de aplicación a la concesión de subvenciones, en la modalidad de concurrencia no competitiva, para paliar los efectos económicos provocados por la alarma sanitaria declarada para hacer frente a la pandemia del COVID-19 entre microempresas y personas trabajadoras por cuenta propia de Errenteria, incluidas aquellas del sector agrario.

Se entenderá por subvención la disposición dineraria de fondos públicos sin contraprestación directa para sufragar parte de los gastos ordinarios soportados por aquellas empresas que han tenido que paralizar su actividad o han visto su facturación mermada por la declaración del estado de alarma, en los términos previstos en esta Ordenanza.

2.- Créditos presupuestarios a los que se imputa la subvención y cuantía total máxima de las subvenciones.

El importe total destinado a la presente subvención es de 1.700.000€ con cargo a la partida presupuestaria del 2020 siguiente:

Nolanahi ere, eskaeren kopurua eta zenbatekoa bideratutako kopurua baino handiagoa bada, Errenteriako Udalak zenbateko hori handitu ahal izango du, bere finantza-erabilgarritasunaren arabera.

Dirulaguntzaren diru-kopuruak inoiz ezin izango du diruz lagundutako jardueraren kostua gainditu, ez bakarrean, ezta aldi berean beste dirulaguntzekin, laguntzekin, diru-sarrerekin edo baliabideekin ere.

3.- Onuradunak

Dirulaguntza hauen araubidea soil-soilik mikroenpresei eta norberaren konturako langileei aplikatuko zaie (nekazaritzako erregimen bereziaren barruan daudenak barne), baldin eta, 4. puntu ezarritako baldintzak betez, beren jardura geldituta edo fakturazioa murriztuta badute, biztanleria konfinatzeko eta jardura ekonomikoa geldiarazteko COVID-19ko krisiak sortutako neurrien ondorioz.

Deialdi honen ondorioetarako:

- **Mikroenpresatzat hartuko da** urtean 1.000.000 euro edo beheragokoa fakturazioa duen enpresa oro.
- **Fakturaziotzat hartuko da** negozioen guztizko zifra edo jardueraren ondoriozko guztizko salmenta-bolumena.

Onuradunak JEZren epigrafe batean baino gehiagotan inskribatuta badaude, fakturazio-datuak jardura guztietan sortutakoaren batura izango dira.

Jardueraren urte osoa bete ez duten onuradunen kasuan, benetan egindako denbora-tartea urtean proportzionalki igoko da.

No obstante, si el número y cuantía de solicitudes superase la cantidad destinada, el Ayuntamiento de Errenteria podrá ampliar el citado importe, en función de su disponibilidad financiera.

El importe de la subvención en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

3.- Beneficiarios

El régimen de las presentes subvenciones será de aplicación exclusivamente para aquellas microempresas y personas trabajadoras por cuenta propia (incluidas las integradas dentro del régimen especial agrario) que, cumpliendo los requisitos establecidos en el punto 4º, hayan visto paralizada su actividad o mermada su facturación, debido a las medidas de confinamiento general de la población y paralización de la actividad económica sobrevenidas por la crisis del COVID-19.

A los efectos de esta convocatoria:

- **Se entenderá por microempresa** toda aquella empresa que tenga una facturación igual o inferior a 1.000.000 euros anuales.
- **Se entenderá por facturación**, la cifra total de negocios o volumen total de ventas derivada de su actividad.

En el caso de que los beneficiarios se hallen inscritos en más de un epígrafe del IAE, los datos de facturación se referirán a la suma de lo generado en todas las actividades.

En el caso de aquellos beneficiarios que no hayan completado una anualidad entera de actividad, se elevará proporcionalmente al año el intervalo efectivamente realizado.

- **Beren jarduera geldiarazizat joko da** 463/2020 Errege Dekretuaren (COVID-19k eragindako alarma-egoera deklaratzeko duena) 10. artikuluan zerrendatutako jarduera-eremua duten mikroenpresak eta norberaren konturako langileak.

Oro har: txikizkako lokal eta establezimenduak, ostalaritza eta jatetxeak, eta kirol- eta kultura-jarduerak.

- **Fakturazioa murriztu egin dela ulertuko da** 7. puntuan ezarritako denbora-eremuan fakturazioa %40a edo hortik gorako portzentajea murriztu denean, bi epe hauekoren batekin alderatuz:

* Aurreko urteko epe bera, edo

* 2019ko batezbesteko fakturazioa.

4.- Onuradunek bete beharreko baldintzak.

Deialdi honetan arautzen diren zuzeneko laguntzak eskatu nahi dituzten mikroenpresek edo norberaren konturako langileek (nekazaritzako erregimen berezikoak barne) baldintza hauek bete beharko dituzte:

- JEZn alta emanda egotea, gutxienez, 2020ko martxoaren 14tik.
- Autonomoen kasuan, alegatutako jarduera ekonomikoa beren jarduera nagusia izatea, hau da, beren diru-sarreraren iturri nagusia.
- Egoitza fiskala Erreenterian izatea.

Horrez gain,

- Jarduera geldiarazita dutenek urtean

- **Se entenderá que han visto paralizada su actividad** aquellas microempresas y personas trabajadoras por cuenta propia cuyo ámbito de actividad se encuentre entre los relacionados en el artículo 10 del Real Decreto 463/2020, por el que se declara el estado de alarma ocasionada por el COVID-19.

Con carácter general: locales y establecimientos minoristas, hostelería y restauración, y actividades deportivas y culturales.

- **Se entenderá que han visto mermada su facturación**, cuando la misma se haya reducido, dentro del ámbito temporal establecido en el punto 7, en un porcentaje igual o superior al 40% respecto a alguno de los dos siguientes periodos:

* El mismo periodo del año anterior o,

* La facturación media de 2019.

4.- Requisitos de los beneficiarios.

Las microempresas o personas trabajadoras por cuenta propia (incluidas las del régimen especial agrario) que deseen solicitar las ayudas directas que se regulan en esta convocatoria deberán cumplir los siguientes requisitos:

- Estar dado de alta en el IAE, al menos, desde el 14 de marzo de 2020.
- En el caso de las personas autónomas, que la actividad económica alegada constituya su actividad principal, es decir, su fuente principal de ingresos.
- Tener su domicilio fiscal en Erreenteria.

Adicionalmente,

- Aquellas que hayan visto paralizada su

gutxienez 9.000 euroko eta gehienez 1.000.000 euroko fakturazioa izan beharko dute.

- Fakturazioan murrizketa jasan dutenek urtean gutxienez 9.000 euroko eta gehienez 110.000 euroko fakturazioa izan beharko dute.

Espresi deialdi honetatik kanpo geratzen dira irabazi asmorik gabeko entitate eta elkarteak.

Era berean, ezin izango dute diru-laguntzarik eskatu nortasun juridiko propioz ez duten pertsona fisiko edo juridikoen elkarteek, ondasun-erkidegoek edo bestelako unitate ekonomiko edo ondare bananduek.

5.- Onuradunen bateraezintasunak

Deialdi honetan ezin izango dira aurkeztu eskabidea aurkeztu duten edo aurkeztuko duten mikroenpresetan bazkide diren edo parte hartzen duten norberaren konturako langile autonomoak, eta alderantziz.

Era berean, ezin izango dute eskaerarik aurkeztu norberaren kontura lan egiten duten autonomoek, baldin eta Lanbidek autonomoei eta banakako enpresaburuei eman badie laguntza, COVID-19aren hedapenak sortutako alarma-egoeraren ondorioz, edo beste laguntza baliokideren baten ondorioz.

Lanbiden eskaera aurkeztu baldin badute, Lanbideren ezezko erantzuna jaso arte itxoin beharko dute eskaera aurkezteko.

6.- Diruz lagundu daitezkeen gastuen tipologia

Deialdi honen ondorioetarako, hauek hartuko dira diruz laguntzeko moduko gastutzat:

A) Hauek direla-eta fakturazioan eragindako murrizketa:

actividad, deberán tener una facturación anual mínima de 9.000 euros y máxima de 1.000.000 euros.

- Aquellas que hayan visto mermada su facturación, deberán tener una facturación anual mínima de 9.000 euros y máxima de 110.000 euros.

Quedan expresamente excluidas de esta convocatoria las entidades y/o asociaciones sin ánimo de lucro.

Tampoco podrán solicitar estas subvenciones las agrupaciones de personas físicas o jurídicas, las comunidades de bienes o cualquier otro tipo de unidad económica o patrimonio separado, carentes de personalidad jurídica propia.

5.- Incompatibilidades de las beneficiarias

No podrán presentarse aquellas personas autónomas trabajadoras por cuenta propia que sean socias o posean participación alguna en microempresas que hayan presentado o vayan a presentar solicitud en esta convocatoria, y viceversa.

Tampoco podrán presentar solicitud aquellas personas autónomas trabajadoras por cuenta propia a las que LANBIDE haya concedido su ayuda a autónomos y empresarios/as individuales debido a la situación de alarma generada por la expansión del COVID-19, u otra ayuda equivalente.

En caso de que hayan realizado su solicitud ante Lanbide, podrán presentarse solo si ya han recibido una respuesta denegatoria por parte de Lanbide.

6.- Tipología de los gastos subvencionables

A los efectos de esta convocatoria, se consideran gastos subvencionables los siguientes:

- A) La merma en la facturación provocada por:
- la paralización de la actividad

- Jarduera geldiaraztea
- Konfinamendu-neurriak, murrizketa 3. puntu azaldutako terminoetan kalkulatuta.

B) Jarduera egiten den establezimenduaren edo establezimenduen alokairua.

Establezimendu bat baino gehiago izanez gero, bakar baterako eskatu beharko da laguntza.

C) Jarduera ekonomikoari lotutako ondasunak eskuratzea banku-erakunde bidez finantzatzea.

Horretaz gain,

D) Arropa, oinetakoak eta osagarriak txikizka saltzen dituzten establezimenduen kasuan, salgaien erosketa edo hornikuntza, 2020ko udaberri-uda denboraldirako.

BEZ eta bestela zeharkako zergak diruz lagunduko dira, soilik berreskuragarriak edo konpentsagarriak ez badira.

7.- Denbora-eremua

Fakturazioa zein diruz lagun daitezkeen gastuak kalkulatzeko, 2020ko martxoaren 14tik alarma-egoera amaitu eta hilabetera arte igarotako epea hartuko da erreferentziazat.

8.- Dirulaguntzaren kopurua

Zenbateko hauek ezartzen dira, onuradunaren tipologia araberako:

A) Jarduera geldiarazi behar izan dutenak:

- 1.000 euroko kopuru finkoa.
- Horretaz gain, ostalaritzako eta jatetxeetako jardueretarako, 200 euroko zenbateko finkoa.
- Jarduera egiten den establezimenduaren

- las medidas de confinamiento, calculada la merma en los términos expuestos en el punto 3º.

B) El alquiler del establecimiento o establecimientos donde se desarrolla la actividad.

En caso de que se dispusiera de varios establecimientos, deberá solicitarse la ayuda para uno solo..

C) La financiación a través de entidades bancarias de la adquisición de bienes afectos a la actividad económica.

Adicionalmente,

D) En el caso de establecimientos de venta al por menor de ropa, calzado y complementos, la compra o aprovisionamiento de mercancías para la temporada primavera-verano 2020.

El IVA y otros impuestos indirectos solo serán subvencionables cuando no sean susceptibles de recuperación o compensación.

7.- Ámbito temporal

Para el cálculo tanto de la facturación como de los gastos subvencionables se tomará como referencia el periodo transcurrido desde el 14 de marzo de 2020 y hasta un mes después desde que finalice el estado de alarma.

8.- Cuantías de la subvención.

Se establecen las siguientes cuantías, en función de la tipología de la beneficiaria:

A) Aquellas que han visto paralizada su actividad:

- Una cantidad fija de 1.000 euros.
- Adicionalmente, para las actividades de hostelería y restauración, una cantidad fija de 200 euros.
- Por gastos de alquiler del establecimiento

alokairu-gastuengatik, 300 eurora arte.

- Jarduerari atxikitako ondasunen erosketa finantzatzen duten maileguen interesak eta amortizazio-gastuak, 250 eurora arte.
- 2020ko udaberri-udako arropa, oinetakoak eta osagarriak erosteko edo hornitzeko gastuengatik, 200 eurora arte.

B) Jardueran murrizketa izan dutenak:

- 500 euroko kopuru finkoa.

9.- Laguntzak ematea.

Laguntza horiek izapidetzeak, salbuespen gisa, lehia baztertzen du, kasu horietan ez baita beharrezkoa eskabideak elkarren artean alderatzea, eta deialdi honetan zehaztutako baldintzak betetzen dituen edozein enpresa edo pertsona autonomori laguntzeko interes berezia dagoelako.

Era berean, lehiarik gabeko konkurrentzia da laguntza-eskaerei behar bezalako arretaz erantzuteko aukera ematen duen mekanismoa.

Beraz, eskabideak aurkeztutako ordenaren arabera emango dira laguntzak.

Udalak eskaerak metatu ahal izango ditu dirulaguntza emateko ebazpen bakarrean. Zentzu beran, eskaerak jaso ahala ebazpenak emango ditu.

Ebazpenak administrazio-bideari amaiera emango dio eta udalaren webgunean argitaratuko da (<https://errenteria.eus/zu/dirulaguntzak/>).

Ebazpenaren argitaratze eguna izango da kontuan hartuko dena epeak zenbatzeko. Argitaratze egunean bertan, Udalak abisua igorriko die, posta elektronikoz, eskatzaileei.

donde se desarrolla la actividad, hasta 300 euros.

- Por gastos de amortización e intereses de préstamos que financien la adquisición de bienes afectos a la actividad, hasta 250 euros.
- Por gastos de compra o aprovisionamiento de mercancías de ropa, calzado y complementos de la temporada primavera-verano 2020, hasta 200€.

B) Aquellas que han visto mermada su actividad:

- Una cantidad fija de 500 euros.

9.- Concesión de ayudas.

La tramitación de estas ayudas, excepcionalmente, excluye la concurrencia competitiva por cuanto en estos casos no es necesaria la comparación de solicitudes entre sí y por el interés especial de ayudar a cualquier empresa o persona autónoma que cumpla los requisitos especificados en la presente convocatoria.

Asimismo, la concurrencia no competitiva es el mecanismo que permite que las solicitudes de ayuda puedan ser atendidas con la debida diligencia.

Por tanto, las ayudas se concederán por orden de presentación de las solicitudes.

El Ayuntamiento podrá agrupar o acumular solicitudes en una misma resolución de concesión. En el mismo sentido, irá resolviendo las solicitudes a medida que se reciban.

La resolución dará fin a la vía administrativa y se publicará en la página web municipal (<https://errenteria.eus/zu/dirulaguntzak/>).

Se tendrá en cuenta la fecha de publicación de la resolución para el cómputo de los plazos. El día de la publicación, el Ayuntamiento enviará un aviso por

10.- Entitate kolaboratzailea

Oarsoaldea SA eskualde-garapenerako sozietate publikoak Errenteriako Udalak laguntza horiek izapidetzeko eskatu dizkion lanak egingo ditu, eskabideen aurkezpena bideratzeko eta eskatzaileei aholkularitza integrala eta pertsonalizatua eskaintzeko, probintziako, autonomia-erkidegoko edo estatuko administrazio publikoek eskaintzen dituzten laguntzen eta finantzaketaren ildoei dagokienez.

11.- Prozedura.

Eskabideak aurkeztu ahal izango dira: bai telefonoz 010 zenbakiaren bidez, zein bide telematikoz Errenteriako Udalaren erregistro elektronikoaren bidez edo errenteria.eus udal webgunetik (<https://errenteria.eus/covid19-dirulaguntzak>).

Telefono-deien kasuan, eskatzailearen nortasuna egiaztatzeko behin-behineko bitarteko gisa, kontraste-datu bat eskatu ahal izango da, hau da, 2019ko ur-kontsumoagatik ordainagiri baten zenbatekoa.

Alarma-egoera amaitu edo konfinamendu-neurriak lasaitu ondoren, Udalean aurrez aurreko arretari berrekiten zaionean, eskabideak paperean ere aurkeztu ahal izango dira Zu! Zerbitzuaren bidez.

Eskaera laguntzaren xede den jarduera ekonomikoari buruzko erantzukizunpeko adierazpena izango da.

Eskabide-eredua deialdi honen I. eranskinean dago jasota.

14. puntuan zehaztutako egiaztagiria eskaerarekin batera aurkeztu ahal izango dira edo bestela, 15. puntuan adierazitako epean.

correo electrónico a los solicitantes.

10.- Entidad colaboradora

La sociedad pública de desarrollo comarcal Oarsoaldea S.A. realizará las tareas que le han sido encargadas por el Ayuntamiento de Errenteria en la tramitación de estas ayudas, al objeto de canalizar la presentación de solicitudes y ofrecer a los solicitantes un asesoramiento integral y personalizado respecto a las diferentes líneas de ayudas y financiación ofrecidas por las Administraciones Públicas tanto provinciales, de la comunidad autónoma o estatales.

11.- Procedimiento.

Las solicitudes se podrán presentar bien por vía telefónica a través del 010, por vía telemática a través del registro electrónico del Ayuntamiento de Errenteria o a través de la página web del Ayuntamiento errenteria.eus (<https://errenteria.eus/es/ayudas-covid19>).

En el caso de las llamadas telefónicas, como medio provisional de verificación de la personalidad del solicitante, se podrá requerir un dato de contraste, que consistirá en el importe de uno de los recibos por consumo de agua de 2019.

En el momento en el que, finalizado el estado de alarma o relajadas las medidas de confinamiento, se reanude la atención presencial en el Ayuntamiento, las solicitudes podrán presentarse también en papel a través del servicio ZU!

La solicitud consistirá en una declaración responsable respecto a la actividad económica para la que se alega la ayuda.

El modelo de solicitud se recoge en el Anexo I de esta convocatoria.

La documentación justificativa descrita en el punto 14 podrá presentarse junto con la solicitud o, con

12.- Eskabideak aurkezteko epea.

Eskabideak aurkezteko epea irekiko da deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean eta amaituko da alarma egoera amaitu eta bi hilabetetara, edo 2020ko irailaren 30ean alarma -egoera ez bada ordurako amaitu.

13.- Dirulaguntza ordaintzea.

Dirulaguntzaren diru-kopuruak behin behineko ebazpenaren ondoren ordainduko dira, bertan zehaztutako epeen barruan, egiaztagiriak aurkeztu baino lehen.

14.- Egiaztagiriak

Onuradunek zuzenbidean onartutako edozein frogabideren bidez egiaztatu beharko dituzte eskabidean jasotako alderdiak. Zehazki, orientazio moduan eta xehetasunik gabe, hauek ezarri dira:

* Pertsonalitatea:

- NAN, eratze-eskiriturak...

* Ordezkatzeko ahalmen nahikoa:

- Notario-ahalordea.

* Urteko fakturazioa eta jarduera nagusia:

- Onartutako urteko kontuak, errenta-aitorpena (persona fisikoen kasuan)...

* Norberaren konturako langileak:

- Autonomoen kotizazioaren azken ordainagiria.

* Establezimenduaren alokairua:

- Kontratuaren kopia eta epe horretako ordainagiriak, edo berandutze-erabakiaren

posterioridad, en el plazo establecido en el punto 15..

12.- Plazo de presentación de solicitudes.

El plazo de presentación de solicitudes estará abierto desde el día siguiente a la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y hasta transcurridos 2 meses desde la declaración de la finalización del estado de alarma o el 30 de septiembre de 2020, si no finalizara antes.

13.- Abono de la subvención.

El abono de la subvención se realizará a cuenta, tras la resolución provisional de la concesión y en el plazo en el que se establezca en la misma, con carácter previo a la presentación de la documentación justificativa.

14.- Documentación justificativa

Las personas beneficiarias deberán acreditar los extremos recogidos en la solicitud mediante cualquier medio de prueba admitido en derecho. En particular, a modo orientativo y sin carácter exhaustivo, se establecen los siguientes:

* Personalidad:

- DNI, escritura de constitución...

* Poder suficiente de representación:

- Poder notarial o apud acta.

* Facturación anual y actividad principal:

- Cuentas anuales aprobadas, declaración de la renta (personas físicas)...

* Persona trabajadora por cuenta propia:

- Último recibo abonado de la cotización de autónomos.

* Alquiler del establecimiento:

- Copia del contrato y justificantes de abono durante el periodo, o justificante del acuerdo

egiaztagiria.

* Mailegua:

- Maileguaren kopia eta epe horretako ordainagiriak, edo berandutze-erabakiaren egiaztagiria.

* Denboraldirako hornidurak

- Horniduren fakturak eta ordainagiriak.

* Murrizketa fakturazioan:

- BEZari, balantzeari edota galdu-irabazien kontuari buruzko hiru hilean behingo edo hileko aitorpena, sarrera eta gastuen liburua, dagokion epealdiko enpresaren faktura-liburua,...

15.- Egiaztagiriak aurkezteko epea

Justifikazio-agiriak eskabide telematikoarekin edo Zu! zerbitzuan aurkeztu ahal izango dira, paperean, alarma-egoera amaitu eta gehienez 4 hilabeteko epean, edo 2020ko urriaren 30era arte, ordurako amaitu ez bada.

16.- Agiriak egiaztatzea eta behin-behineko ebazpenen errebisioa

Justifikazio-dokumentazioa aurkeztu eta Udal zerbitzuek aztertu ondoren, deialdi honetan ezarritako laguntzak jasotzeko baldintzak edo betekizunak edo eskabidean alegatutako alderdiren bat partzialki edo osorik ez dela betetzen hautematen bada, bidegabe jasotako zenbatekoa zati batean edo osorik itzultzeko espedientea abiaraziko da.

Justifikazio-dokumentazioa horretarako ezarritako epean aurkezten ez bada, bidegabe jasotako zenbatekoa itzultzeko espedientea irekiko da.

Aurkeztutako dokumentazioa zuzena bada eta eskabidean alegatutakoarekin bat badator, behin-

de moratoria.

* Préstamo:

- Copia del préstamo y justificantes de abono durante el periodo, o justificante del acuerdo de moratoria.

* Aprovisionamientos de temporada

- Facturas y justificantes de pago de los aprovisionamientos.

* Merma en la facturación:

- Declaración trimestral o mensual de IVA, balance y/o cuenta de pérdidas y ganancias, libro de ingresos y gastos, libro de facturas de la empresa del periodo correspondiente...

15.- Plazo de entrega de la documentación justificativa

La documentación justificativa podrá entregarse junto con la solicitud telemática o en el ZU!, en formato papel y en el plazo máximo de 4 meses tras la finalización del estado de alarma o hasta el 30 de octubre de 2020, si no hubiera finalizado para entonces.

16.- Comprobación de la documentación y revisión de las resoluciones provisionales

Una vez entregada la documentación justificativa y analizada la misma por los servicios municipales, si se detectara el incumplimiento parcial o total de los requisitos o condiciones para percibir las ayudas establecidas en esta convocatoria o de alguno de los extremos alegados en la solicitud, se incoará el correspondiente expediente de reintegro parcial o total de la cantidad indebidamente percibida.

La no entrega de la documentación justificativa en el plazo habilitado al efecto dará lugar a la incoación del correspondiente expediente de reintegro de la cantidad indebidamente percibida.

behineko ebazpena behin betiko bihurtuko da

17.- Oinarri orokorrak

Oinarri espezifiko hauetan zehaztu gabekoari buruz, legokiokenean, ERRETERIAKO UDALAK 2020 URTEAN DIRULAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEKO OINARRI OROKORRETARA jo beharko da.

En caso de que la documentación presentada sea correcta y se ajuste a lo alegado en la solicitud, la resolución provisional devendrá definitiva.

17.- Bases generales

En lo no especificado en esta bases específicas, le serán de aplicación en lo que procediera las BASES GENERALES PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES POR PARTE DEL AYUNTAMIENTO DE ERRETERIA DURANTE EL AÑO 2020.